



ZERGATIK ABIATU EBK BAT SORTZEKO PROZESU BAT?

- Energia Berriztagarriak sustatuz, energia fosilen erabilera gutxitzen lagunduko dugulako.
- Kontsumo eredu arduratsua eta jasangarria sustatuko dugulako. Tokian tokiko ardura eta baliabideekin.
- Komunitatearen parte hartzea eta ahalduntzea bermatuko dugulako.
- Pertsonak erdigunean jarriz “egiteko beste modu” batzuk daudela ikusaraziko dugulako.

Nortzuk gara eragile giltzarriak?

- **Herritarrak:** norbanakoak, herri-eragileak, elkarteak, bizilagun elkarteak...
- **Udala** edo tokian tokiko administrazio publikoa.
- Tokian **tokiko enpresa txiki eta ertainak.**

Zer atera dezakegu aurrera?

- Iturri berriztagarrietatik datorren energia efizientea sortzea.
- Komunitatearen energia aurrekia eta eraginkortasuna areagotzeko aholkularitza-zerbitzua eskaintzea.
- Pobrezia energetikoaren aurka borrokatzea.
- Garraio eta mugikortasun jasangarrirako alternatibak eskaintzea.



ELKARREKIN SORTZEA

